



ERABAKIA, 2026ko OTSAILAREN 2koa, UPV/EHUko GERENTEARENA, UPV/EHUko TEKNIKARIAK ETA KUDEAKETAKO ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN LAN POLTSAK ERATZEARI ETA KUDEATZEARI BURUZKO 2017ko UZTAILAREN 18ko AKORDIOAREN 8. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO HOBESPENAK ZEHATZEKO EPEA ZABALTZEKO DENA

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2017ko uztailaren 18an administrazioak eta sindikatuek akordio bat sinatu zuten UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen lan poltsak eratu eta kudeatzeko eta lan poltsetako kideak ordenatzeko, eta, gero, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak berretsi egin zuen akordioa 2017ko irailaren 28ko bileran (2018ko maiatzaren 16ko EHAA).

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- UPV/EHUko gerenteak eskuordetuta dauka erabaki hau emateko eskumena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakiaren bidez (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2025eko otsailaren 19ko EHAA).

Bigarrena.- 2017ko uztailaren 18ko Akordioak, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzko akordioak, honako hau dio 8.1. artikuluan:

«8.1. Akordio honen eraginpeko pertsonak urtero zehaztu ahal izango dituzte, gerentearen erabakiaren bidez horretarako ezarriko den prozedurarekin bat eta bertan adieraziko diren epeen barruan, lan eskaintzetarako lehenetsi nahi dituzten aukerak. Zehaztu ahal izango dituzten elementuak dira lurralde esparrua, eskaintzaren iraupena, lanaldi mota edo Eibarren lan egiteko aukera, betiere, artikulua honetan adierazitako baldintzetan. Ezer zehazten ez duten pertsonak lanerako moduan agertuko dira orain arte lanerako moduan egon diren lurralde berberetan, edozein iraupenetako eskaintzak jasoko dituzte, eta ez dute lanaldi partzialeko edo

RESOLUCIÓN DE 2 DE FEBRERO DE 2026, DEL GERENTE DE LA UPV/EHU, POR LA QUE SE HABILITA UN PLAZO PARA EL EJERCICIO DE LAS DISPONIBILIDADES PREVISTAS EN EL ARTÍCULO 8 DEL ACUERDO DE 18 DE JULIO DE 2017 SOBRE CONFIGURACIÓN Y GESTIÓN DE LAS BOLSAS DE TRABAJO DE PERSONAL TÉCNICO, DE GESTIÓN Y DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS DE LA UPV/EHU

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.- Con fecha 18 de julio de 2017, la Administración y las centrales sindicales alcanzaron un Acuerdo sobre configuración y gestión de bolsas de trabajo y ordenación de sus integrantes, relativo al Personal de Administración y Servicios de la UPV/EHU, Acuerdo que fue posteriormente ratificado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU en su sesión de 28 de septiembre de 2017 (BOPV de 16 de mayo de 2018).

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- El Gerente es competente, por delegación, para dictar esta Resolución, en virtud de lo dispuesto en la Resolución de 30 de enero de 2025, del Rector de la EHU, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno y de delegación de competencias (BOPV de 19 de febrero de 2025).

Segundo.- El Acuerdo de 18 de julio de 2017, sobre configuración y gestión de las bolsas de trabajo y ordenación de sus integrantes, establece lo siguiente en su artículo 8.1:

«8.1. El personal incluido en el presente acuerdo podrá delimitar anualmente, a través del procedimiento y en los plazos que se establezcan al efecto mediante resolución de la Gerencia, su disponibilidad para ofertas de trabajo en relación al territorio, la duración de la oferta de trabajo, la jornada o Eibar, en las condiciones que se señalan en este artículo. Aquellas personas que no fijen expresamente su ámbito de disponibilidad, tendrán atribuido por defecto la totalidad del territorio para el que estén habilitados, disponibilidad total en relación a la duración de la oferta y no disponibilidad en relación a la jornada o Eibar. Una vez fijados los parámetros de



arratsaldeko lanaldiko eskaintzarik jasoko, ezta Eibarren lan egiteko eskaintzarik ere. Urte jakin batean zehaztutako aukerak hurrengo urteetarako mantenduko dira, interesdunak berak ez baditu aldatzen urtero horretarako ezarriko den epearen barruan».

Hori guztia kontuan hartuta, gerentzia honek, eman zaizkion eskumenen babesean, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hamar egun balioduneko epea ezartzea (2026ko otsailaren 9tik 20ra, biak barne), UPV/EHUko Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen lan poltsetako kideek zehaztu ditzaten 2017ko uztailaren 18ko Akordioak, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzkoak, 8. artikuluan jasotako aukerak.

Bigarrena.- Interesdunek Lan Eskaintzen Atarian zehaztu ahal izango dituzte prozedura honetan adierazitako aukerak. Horretarako, saioa hasi behar dute beren erabiltzailea (NANa, letra eta guzti) eta pasahitza sartuta, honako esteka honetan:

Gaztelaniaz:

https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/espanol/generico_login.jsp

Euskaraz:

https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp

Aukerak nahi adina aldiz aldatu ahal izango dira epearen barruan, baina 2026ko otsailaren 20ko 24:00ak baino lehen gordetzen diren azkenak baino ez dira baliozkoak izango.

Hirugarrena.- Lehenengo puntuan aurreikusitako epea amaitutakoan, lan poltsetako kideek zehaztutako aukerak eta ezer ez adierazteagatik berez ezarritakoak aplikazioan gordeta geratuko dira behin-behinekoak, eta lan poltsetako kideek 2026ko otsailaren 27tik aurrera ikusi ahal izango dituzte lan poltsak ohi bezala kontsultatuta. Halaber, egun horretatik hasita,

disponibilidad para un año determinado, éstos se mantendrán para años sucesivos en tanto no sean expresamente modificados por el interesado dentro del plazo que anualmente se habilite al efecto».

Por cuanto antecede, esta Gerencia, en virtud de las facultades que le están conferidas,

RESUELVE

Primero.- Habilitar un plazo de 10 días hábiles (del 9 al 20 de febrero de 2026, ambos inclusive) para que el personal incluido en las bolsas de trabajo de Personal Técnico, de Gestión y de Administración y Servicios de la UPV/EHU pueda ejercer las opciones previstas en el Artículo 8 del Acuerdo de 18 de julio de 2017, sobre configuración y gestión de las bolsas de trabajo y ordenación de sus integrantes.

Segundo.- Las personas interesadas podrán ejercer las opciones previstas en este procedimiento a través del Portal de Empleo. Para ello deberá iniciar sesión utilizando su usuario (DNI con letra) y contraseña en el siguiente enlace:

Castellano:

https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/espanol/generico_login.jsp

Euskara:

https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp

Las opciones podrán modificarse libremente durante el plazo habilitado al efecto, resultando únicamente válidas las guardadas por última vez antes de las 24:00 horas del día 20 de febrero de 2026.

Tercero.- Una vez finalizado el plazo previsto en el punto primero, las opciones finalmente ejercidas por las personas integrantes de las bolsas, así como las atribuidas por defecto para quienes no lo hayan hecho expresamente, pasarán a integrarse al aplicativo con carácter provisional y se podrán visualizar a partir del 27 de febrero de 2026 en el modo de consulta habitual de las bolsas por sus



hiru egun balioduneko epea izango dute (otsailaren 27tik martxoaren 3ra, biak barne) aukera horien aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe hori igarotakoan, aukera horiek behin betiko bihurtuko dira, erreklamazioen bat jaso den kasuetan izan ezik. Kasu horiek prozedurari amaiera emango dion gerentearen erabakiaren bidez ebatziko dira.

Laugarrena.- Gaur egun indarrean dauden aukeren indarraldia 2026/03/16ra arte mantentzen da, eta une horretan sartuko baitira indarrean prozedura honen bidez egindako aukera berriak.

Bostgarrena.- Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke UPV/EHUko gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean. Kasu bietan ere, epeak zenbatzen hasiko dira erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Leioa, 2026ko otsailaren 2a

integrantes, disponiendo éstos de 3 días hábiles (del 27 de febrero al 3 de marzo, ambos inclusive) para poder presentar reclamación contra las mismas. Transcurrido el citado plazo, las opciones señaladas adquirirán carácter definitivo, excepto en el caso de aquellas para las que se haya recibido reclamación en plazo, que serán expresamente resueltas mediante resolución de la gerencia que ponga fin al procedimiento.

Cuarto.- Se mantiene la vigencia de las opciones actualmente en vigor hasta el 16/03/2026, momento en que entraran en vigor las nuevas opciones ejercidas a través de este procedimiento.

Quinto.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Gerente de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en la página web de la UPV/EHU o bien recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, a partir del día siguiente al de su publicación.

Leioa, 2 de febrero de 2026

GERENTEA / EL GERENTE

Sin./Fdo.: Javier Varona Guarás